

BAKEA

Joana Anchordoqui

Zuraide, 13 urte

Kondatuko dizuet duela urte bat nire etxean gertatu zena:

Joana deitzen naute, hamahiru urte ditut eta Baionako kale hestu batean bizi naiz anaia Oiher eta aitamekin. Alimaleko etxe bat dugu eta, nire ama hoteletako apainketez-eta arduratzen baita, etxea beti garbi dugu, ez da sekulan deus lurrean, gusto haundiarekin apaindua da, baina, nire ustez, murrak sobera kargatuak dira aitak hainbeste maite dituen Picasso-ren tinduez. Etxe honetan den giroa ez dut batere maite, ama beti gibeletik dabilkit, ez baititut, neska normalek bezala, ene puskak biltzen, ezta lanak egiten. Gainera, nire ama Xantalek erosten dizkidan gauzak ez ditut batere gustuko. Aitak bakarrik nau ulertzen; erraiten du berezia naizela, denbora hauetan arazoak ditudalako. Gainera, anaiak ahal duen guztia egiten du ni nardatzeko: perfektua da. Bixaiari ez du sekulan botoin bakar bat eta ikastolatik sartzean bere jantziak beti txukunak ditu, nireekin konparatuz, batez ere. Erran behar da ere, neska bakarra naizela atsedenetan rugby-an ari naizena. Baina, hala ere, ezerk ez du sekulan familiako harmonia (edo borroka) hautsi.

Gau batez, nire ohean lokartu ezinik nintzelarik, kolore guztietako argi diztiratsua ikusi nituen.

Pentsaketan ari nintzen bitartean, leihora hurbildu eta zeruan zeuden koloreak begiratzuz egon nintzen. Zer kolore ederrak: urdina, arrosa, ubela, horia, laranja, berdea... segur nintzen aita Pantxok bere tinduetan baliatuko zituzkeela ikusi izan bali-tu.

Bat-batean, argiak desagertu, eta nire lehiotik so eginez, bi zentimetroko luzerakoa dirudien etxearen beste aldean dagoen baratzetik rugby baloi baten itxura zuen “zera” bat airatu zen. Badakizue fikziozko filmetan ikusten diren ontzi hegariarik bezalakoa. Familiak hori ikus zezan oi-hu egin nuen, baina baratzera buruz begiratzeko dena desagertua zen. Hori guztia lehenbailehen ahortzi behar nuela erran zidan aitak; amak lokartzeko agindu.

Berehala atera ziren atea haien gibeletik danba hetsiz, eta ni lokartu. Ordu batzuen buruan, iguzki izpiak ganbaran sartu orduko, iratzargailuak belarriak hausten dituen hotsa atera zuen. Begiak ideki, ohetik atera eta, une horretan berean, ohar-tu nintzen nire buru gainean zerbait bitxia neukala. Giza gorputz bat zen eta espalden gainean kon-pasez egindakoa zirudien buru borobil bat zuen, sudurrik eta ahorik gabe, haatik; haren begiak horiak ziren eta barneko begi-nini beltzak ez ziren sekulan mugitzen. Ohartu zelarik han nintzela, aberea zirudiena jautsi zen eta nire esku eskuina hartu zidan bere ... (seguraski) hiru erhiko eskuan. Esku ahurra aitaren mustatxa bezain latza zuen eta behatzetan primaderan arraintzatzen ditugun

amuarrainek bezalako azala zuen. Hau gertatzen zen artean nire buruaren barnean ahots bat entzun nuen; dudarik gabe, nire parekoa mintzo zitzaidan:

– Bai, bada, martiztar bat naiz; grisa banaiz ere, martiztarra naiz eta eginkizun bat dut: lur planetan espezimen perfektoa aurkitu eta martitzera eramán.

Asmatua nuen berehala martiztar bat zela eta bere komunikatzeko moldea zuela, ahorik ez izanez. Orduan, batere pentsatu gabe bota nion:

– Nire anaiarekin ez naiz sekulan mintzatzen, baina segurtatzen ahal dizut espezimen bikaina dela!

Eta lasaiki erantzun zidan posibilitate hori jadanik buruan zebilkiola. Alabaina, biharamun eguerditan egingo zuten bidaia espazioan zehar.

Orduan, ohartu nintzen goizeko zortziak zirela eta ez nintzela janzten ere hasia: biziki berantean nintzen. Nire eguneroko galtza urdina eta “All Black” taldeko elastikoa jantzi eta bizikletaz (5. abiaduran) ikastolara joan nintzen. Usaian bezala, eskolara berant iritsi nintzen eta nire ilemotzak ez ziren orraztuak. Bistan da, beste ikasleak nitaz trufatu ziren, lotsatua nintzen; senditzen nuen gorria eta beroa mateletaraino heldua; nire bulegoan jarri nintzen isil-isila. Ezin nituen erakaslearen azalpenak segitu: kurtso osoan martiztarra gogotik ezin uxatuz iragan nuen; ez zen liburuetan ikusten ohi diren gizon tipi, berde eta irringarri haietarikorik. Zer egingen zion nire anaiari? Ez ote nintzen

aitarekin horretaz mintzatu behar? (jadanik ergel-tzat hartu ninduen baratzean aireaspil bat bazela erran niolarik ...) Zerbait egiten ahalko nuen Oiher salbatzeko? Zer? (gainera, nik nion proposatu hura eramatea) Berehala aurkitu behar nituen aterabideak. Arratsaldean etxera sartzerakoan, ez nituen oraino aurkituak, baina nire ganbaran sartzean, martiztarra bilatu nuen eta ezin izan nuen idoro. Ez nuen denbora aski ukan martitzen nire anaiari egingo ziotenaz galdetzeko, baina segur nintzen atseginak ez ziren gauzak zirela. Orduantxe bertan ohartu nintzen niretzat kalapita eta istilurako arrazoin hutsa izana zen pertsona ez zela hain nardagarria. Konturatu nintzen zernahi egiteko prest nintzela nire anaia salbatzeko!

Berehala joan nintzen haren bila, buruan nuen ideia zen haren ondoan egoitea, beste planetako bizidunak eramane ez zezan. Haren ganbarara joan nintzen lasterka; beti bezala, dena garbia zen: ohe gaineko estalkiak perfektuki lisatuak, snow-board-eko afixak murrubatean itsatsirik zeuden eta bulego gainean ez zen, nire bulegoan izaiten ohi ziren bezala, ez orririk ez kaierarik denetan barreiatu-rik. Baina Oiher non ote zegoen? Bapatean buruan argi bat piztu zitzaidan. Nire anaiak beti telefono mugikor bat zuen soinean eta zenbakiaz oroitu orduko, deitu nuen. Azantza nondik zetorkeen aztertu eta garaje ondolik heldu zela ohartu nintzen. Dominissi bezain zalu lasterka hasi nintzen eta garaje ondoan aurkitu nuen anaia, lagun batekin irri egiten.

Martiztarrak ez zuen oraindik nire anaia erama-
na eta, gainera, arrotza desagertua zen. Dena bere
onera etorria zen berriro: ez zen nehor gu narda-
tzeko.

Baina aste bat berantago etorri zen berriro per-
sonaia bitxia, eta beti ere ideia berarekin. Espli-
katu zidan martitzeko joan-jina egina zuela nire
anaiari toki bat prestatzeko.

Berriro hasi ziren galderak nire baitan sortzen
(erantzunik gabekoak) eta plan bat asmatu behar
nuela pentsatzen hasi nintzen.

Larunbat goiz batez 10etan jeiki nintzen eta
7etan jeikitzen zen anaia perfektua ez zen oraino
gosaldia. Berehala gogoratu zitzaidan martiztarrar-
ren xedea. Joan nintzen anaiaren ganbarara eta
han, zer ustekabea!, dena desordenean zen, han-
kaz gora. Kezkatzen hasia nintzen, lehen aldiko
nigarra begi bazterretara heldu zitzaidan eta gara-
je ondora ihes egin nuen berriz. Etxeko toki baka-
rra zen bildua ez zena, eta han, amak sekulan lan-
datu ez zituen lore abantsu ustelduen artean zego-
en Oiher, izozturik; baina, hala ere, entzuten ahal
ninduen. Ez dakit zendako, baina momentu horre-
tan aitak tikitan erran zidan esaldi bat etorri zitza-
idan burura. Hona erran zidana: “Zerbait lortu
nahi duzularik, gauza horretan pentsatu behar
duzu azkarki eta nahi duzun guztia lor dezakezu”.

Orduan erran nion, doi-doia maitatzen hasia
nintzenari, beroa, iguzkia, hondartza eta horrelako
gauzetan pentsatzeko. Bere baitan beroari alde bat
pentsatuz, beharbada izotza urtu eta berotuko zela

pentsatzen nuen. Izotza sorginkeriaz bezala urtu zen. Biak oso pozik ginen eta besarkatu genuen elkar (ez nuen pentsatu egun batez gertatzen ahalko zenik ere).

Halako batean, hurbil zegoen zuhaitz gibeletik martiztarra hurbildu zitzaigun. Nahi nuen ihes egin, baina ezin nintzen higitu: zangoak lurrari itsatsiak neuzkan.

Orduan, bizidun grisak eskua hartu zidan eta bere komunikatzeko moldean esplikatu, ez zela lurreratu, sinestarazia zidan bezala, Oiher martiztera eramateko, baizik eta gu bion artean bakea sortzeko.

Une horretan, martiztarra ikustean, nire biziko orrialdearen ifrentzua ikusten hasi nintzen...

Eskerrak emaitako denborarik ez genuen ukan, bakea ekarri zuen bere planetara itzuli behar baitzen. Erran nezake 20/20ko nota emango niokeela bere betekizunean. Ikasi dut nire anaia maitatzen eta orduz geroztik (aitamek aldaketaren nondik-norakoak ulertzen ez badituzte ere) ez dugu urrats bat egiten bata bestea gabe.